## 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 20 OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Programa:** 21 ZERGA ADMINISTRAZIOA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

2019ko ekitaldian zehar Ogasun Zuzendaritzak 2015-2019 legegintzaldirako ezarritako funtsezko hiru helburu lortzeko lan egin du:

1. Finantzen Euskal Kontseiluan agindutako dirubilketaren aurrekontua lortzea.
2. Zerga iruzurraren kontrako borroka.
3. Zergadunei zerga betebeharrak borondatez betetzea erraztea.

Ogasun Zuzendaritzaren zerbitzu guztiek eta Foku Unitateak (Ogasunari esleitutako AKGSAren informatika unitatea) eskura zeuzkaten baliabide guztiak erabili dituzte, koordinatuta, urte anitzeko helburu horiek pixkanaka lortzeko.

Ogasun Zuzendaritzaren helburuetako bat zergadunekiko harremanen ereduan erreferentzia izatea denez, ekitaldi honetan teknologia berriak aplikatzen dira herritarren mesedetan eta iruzurraren aurkako borrokan.

Arestian aipatutako erreferentziatzat hartuz, 2019ko ekitaldian honakoak lantzen jarraitu da:

1. Laguntza programak eta egoitza elektronikoa egokitzea, dagozkien zerga eta informazio ereduak aurkeztea errazteko:
   - Laguntza programen bidez aurkezten diren ereduak zerga araudira egokitzen dira. Hil, hiruhileko eta urteko ereduen laguntza programa, Errenta eta Ondarearen 2018ko Laguntza Programa, Sozietateen 2018ko Laguntza Programa.
   - Egoitza elektronikoaren bidez aurkezten diren ereduak zerga araudira egokitzen dira.
2. “Zergadunen Errolda Bateratua” ZEB mantentzea

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**Programa:** 21 ADMINISTRACION TRIBUTARIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Desde la Dirección de Hacienda se ha continuado trabajando durante el ejercicio 2019 en la consecución de tres objetivos fundamentales establecidos para la legislatura 2015-2019:

1. Lograr el presupuesto de recaudación comprometido en el Consejo Vasco de Finanzas.
2. Lucha contra el fraude fiscal.
3. Facilitar el cumplimiento voluntario de obligaciones tributarias a los contribuyentes.

Todos los Servicios de la Dirección de Hacienda junto con la Unidad Focal (Unidad informática del CCASA asignada a Hacienda) han utilizado todos los recursos disponibles de forma coordinada con la finalidad de progresar en la consecución de estos objetivos plurianuales.

Siendo uno de los objetivos de la Dirección de Hacienda el servir de referente en el modelo de relación con el contribuyente, se continúa en este ejercicio aplicando las nuevas tecnologías en beneficio de los ciudadanos y la lucha contra el fraude.

Tomando como referencia lo anteriormente expuesto, durante este ejercicio 2019 se ha seguido trabajando en:

1. Adecuación de los Programas de Ayuda y la Sede electrónica, para facilitar la presentación de los modelos fiscales e informativos correspondientes:
   - Se adaptan a la normativa tributaria los modelos existentes que se cumplimentan a través de los Programas de Ayuda: Programa de Ayuda de modelos mensuales, trimestrales y anuales, Programa de Ayuda Renta y Patrimonio-2018, Programa de Ayuda Sociedades-2018
   - Se adaptan a la normativa tributaria los modelos correspondientes con presentación a través de la Sede electrónica.
2. Mantenimiento y adecuación del CUC “Censo

eta egokitzea

- 2019ko ekitaldian, 2018an hasitako Foru Ogasuneko zergadunen errolda arazteko prozesuarekin jarraitu da, etengabe eguneratzeko eta akatsen diagnostikoa egiteko prozedura automatizatuak diseinatuz, bai eta zergadun bakoitzaren zerga betebeharrak zehazteko aukera ematen dizkigutenak ere. Horren ondorioz, milaka datu oker edo ez benetakoak eguneratu dira.
- 2019an, Zergadunen Fitxategi Nagusiaren aplikazio informatikoa birdefinitzen hasi da, identifikazio datu berriak sartzeko helburuarekin, datu horiek gainerako aplikazioekin sinkronizatzeko eta zergadunen altak, aldaketak eta bajak hobeto kontrolatzeko, horien ustiapena hobetuko duena.
- Zergadunen erroldak eguneratzeko prozeduretako bat da beste zerga administrazio batzuekin informazioa trukatuz lortzen diren errolda datuak erabiltzea, gure zergadunen erroldan daudenekin erkatzeko, eta datu horiek balioesteko erabiltzea, datuak ezarri edo aldatuz. Gutxika-gutxika, administrazio publikoek ezarritako zerbitzuak erabiltzen joaten da, zergadunen errolda datuak elkarreragingarritasunez lortzeko eta kontrastatzeko.

3. 2016an hasitako honako proiektu hauen azterketa eta garapenaren bilakaera eta ezarpena:

a) Zerga informazioa sartu eta irteteko sistemak berritzea:

Ogasuneko informazioa sartzeko eta ateratzeko sistemak berritu ondoren, prozesuak automatizatuz, bidaltzailearentzako sarrera eta erantzuna azkartuz eta Ogasunean jasotako datuen kalitatea hobetuz, 2019an aplikazio berria ezartzeko lanean jarraitu da. Zerga informazioaren tratamenduaren fase berria garatzen jarraitu da; azken xedea Ogasunean sarrera kanal guztietatik (Laguntza Programa, Egoitza Elektronikoa, Trukea, EDITRAN, etab.) jasotako informazio



Unificado de Contribuyentes”

- Durante el ejercicio 2019 se ha continuado con el proceso de depuración del Censo de Contribuyentes de la Hacienda Foral, iniciado en 2018, diseñando procedimientos automatizados para su actualización continua y el diagnóstico de errores, así como aquellos que nos permiten definir las obligaciones tributarias de cada contribuyente. Ello ha permitido actualizar miles de datos defectuosos o no veraces.
- Se ha iniciado en 2019 una redefinición de la aplicación informática del Fichero Central de Contribuyentes con la finalidad de incluir nuevos datos identificativos, sincronizando los mismos con el resto de aplicaciones y permitiendo mayor control en las altas, modificaciones y bajas de contribuyentes lo que mejorará su explotación.
- Uno de los procedimientos con los que se actualizan los Censos de contribuyentes se basa en la utilización de los datos censales que se obtienen a través de los diferentes intercambios de información con otras administraciones tributarias para su contraste con los existentes en nuestro censo de contribuyentes, utilizándolos en la validación de los mismos mediante su implementación o modificación. Paulatinamente, se van utilizando servicios implementados por las diferentes Administraciones Públicas para obtener y contrastar los datos censales de los contribuyentes de manera interoperable.

3. Evolución e implantación de los siguientes proyectos cuyo análisis y desarrollo se inició en 2016:

a) Renovación de los Sistemas de Entrada y Salida de información tributaria:

Tras la renovación de los sistemas de entrada y salida de información de Hacienda, automatizando los procesos, mejorando la rapidez en la entrada y respuesta al remitente y la calidad de los datos recibida en Hacienda, en 2019 se ha continuado trabajando en la implantación de la nueva aplicación. Se ha continuado desarrollando la nueva fase en el tratamiento de la información fiscal cuya última finalidad consiste en agilizar y automatizar el tratamiento de toda la información

guztiaren tratamendua arintzea eta automatizatzea da. Zehazki, ordainketa ereduetan kudeaketa berria ezartzeak murriztu egin du tratamendu prozesuko gorabeheren kopurua, bai eta arinago konpondu ere.

b) Lankidetza hitzarmena garatzea Notarioen Kontseiluarekin.

2018an ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren laguntza programa (gestoria eta herritarrentzat) eta notarioek erabilitako garapen informatikoak abian jarri ondoren, 2019an zehar hobekuntza berriekin lan egiten jarraitu da ezarritako aplikazioetan.

Erabilitako ibilgailuen transmisio autolikidazioak telematikoki izapidetzeko prozedura berri bat garatu eta balioetsi da. Aurreikusita dago 2020ko ekitaldian ezartzea, eta Arabako Foru Aldundiak eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak lankidetza hitzarmen bat sinatu zain daude.

4. Informazioa trukatzea iruzurraren aurka borrokatzeko

a) BEZaren Berehalako Informazio Hornikuntza:

Zerga kudeaketaren arloan, 2018an BEZaren Berehalako Informazio Hornikuntza abian jartzeak aldaketarik handiena ekarri dio zerga horren kudeaketari, abian jarri denetik, administrazio arteko informazio trukaketa ezinbestekoa baita iruzurraren aurka egiteko.

2019an, proiektu honen funtsezko zati gisa, beste foru ogasunekin batera lan egin da, bi mailatan:

– Errolda mailan: datu trukea, errolda instrumentala eguneratuta edukitzeko.

– Fakturazio erregistroen mailan: Arabako ikuskaritza gaitasunaren BIHra behartuta dauden subjektu pasibo bakoitzaren informazioa trukatu da.

b) Elkarreragingarritasuna: NISAE plataformaren

recibida en Hacienda por los diferentes canales de entrada (Programa de Ayuda, Sede Electrónica, Intercambio, EDITRAN, etc.). En concreto, la implantación de la nueva gestión en los modelos de pago ha reducido el número de incidencias en el proceso de tratamiento, así como una mayor agilidad en la resolución de las mismas.

b) Desarrollo del Convenio de Colaboración con el Consejo de Notarios.

Tras la puesta en marcha en 2018 del Programa de Ayuda del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados para gestorías y ciudadanos y de los desarrollos informáticos utilizados por los Notarios, durante 2019 se ha continuado trabajando con nuevas mejoras en las aplicaciones implantadas.

Se ha desarrollado y validado un nuevo procedimiento para la tramitación telemática de autoliquidaciones de transmisión de vehículos usados que se prevé implantar en el ejercicio 2020, pendiente de la firma de un convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Álava y la Dirección General de Tráfico

4. Intercambio información en la lucha contra el fraude

a) Suministro Inmediato Información del IVA:

En el ámbito de la Gestión Tributaria la puesta en marcha en 2018 del Suministro Inmediato de Información del IVA ha supuesto el cambio más importante en la gestión de dicho impuesto desde su implantación en el que el intercambio de información entre las Administraciones es fundamental en la lucha contra el fraude.

En 2019 como parte fundamental de este proyecto se ha trabajado conjuntamente con las otras Haciendas Forales en dos niveles:

– A nivel censal: intercambio de datos para mantener actualizado el Censo Instrumental.

– A nivel de los registros de facturación: donde se han intercambiado la información de cada uno de los sujetos pasivos obligados al SII de competencia inspectora alavesa.

b) Interoperabilidad: Se han desarrollado nuevos

bidez zerbitzu berriak garatu dira. Plataforma horrek ahalbidetzen du administrazio desberdinen artean zerga informaziora iristea, laguntzen eta dirulaguntzen kontzesio kontrolean zerga egiaztapenek behar dituzten sistema elkarreragingarriak seguruagoak eta arinagoak izan daitezen, eta dirubilketa prozesuak amaitzen laguntzen dute.

Era berean, gainerako administrazioak hasi dira erabiltzen gure aldetik NISAEren elkarreragingarritasun nodoan ezarritako zerbitzuak, hala nola Ondasun Higiezinen Zerbitzua, Errentarena, Ondarearena edo zerga egoitzarena, zerga informazioa linean lortzeko.

5. Jakinarazpen elektronikoa:

2019an zehar, jakinarazpen elektronikoa ezartzeko proiektuari ekin zaio Arabako Foru Aldundian. Ogasun Zuzendaritzak biziki lagundu du aplikazio berria garatzen eta ezartzen, prozeduretan behar bezala jakinaraztearen garrantzia eta ondorioak direla eta.

Gainera, 2019an, Ogasunaren jakinarazpenak jaulkitzeko prozesu masiboak identifikatu eta egokitu dira jakinarazpen elektronikoaren aplikazio berrira, eta aldaketa horren eraginpean dauden zergadunei komunikazio kanpaina bat planifikatu da, 2020ko urtarrilaren amaieran gauzatu dena.

**<u>Zerga kudeaketako jarduketak, Ogasun Zuzendaritzaren zerbitzuek egindakoak</u>**

Zerga kudeaketaren funtsezko helburua hitzartutako zerga guztiengatik zergadunek aurkezten dituzten aitorpenak aztertu eta, bidezkoa izanez gero, likidatzea da, bai eta sortutako behin-behineko likidazioen aurka zergadunek aurkezten dituzten berraztertzeko errekurtsoak ebaztea ere.

Kudeaketaren barruan, funtsezko helburuak dira zerga arloko urratzeak –formalak eta materialak– antzeman eta erregularizatzea eta, bidezkoa bada, araua hausteko jokaerei buruz zehapenak ezartzea, betiere iruzurraren aurkako borroka bultzatzeko asmoarekin. Horretarako, Zerga Kudeaketa Zerbitzuetatik egiaztapen mugatuen prozedura sustatzen jarraitu da, Zergak Ikuskatzeko

servicios a través de la plataforma NISAE. Dicha plataforma permite acceder entre las distintas administraciones a la información tributaria mediante sistemas interoperables más seguros y ágiles que precisan las verificaciones tributarias en el control de concesión de ayudas y subvenciones y facilitan la conclusión de procesos recaudatorios.

Del mismo modo el resto de Administraciones han empezado a utilizar los servicios implementados por nuestra parte en el nodo de interoperabilidad de NISAE, como por ejemplo el Servicio de Bienes Inmuebles, de Renta, de Patrimonio, o de domicilio fiscal, de manera que obtienen la información tributaria en línea.

5. Notificación electrónica:

Durante 2019 se ha iniciado en la Diputación Foral de Álava el proyecto de implantación de la notificación electrónica. Desde la Dirección de Hacienda se ha colaborado de manera intensa en el desarrollo e implantación de la nueva aplicación dada la importancia y efectos de la correcta notificación en los diferentes procedimientos.

Además durante 2019 se han identificado y adaptado los procesos masivos de emisión de notificaciones de la Hacienda a la nueva aplicación de notificación electrónica y se ha planificado una Campaña de comunicación a los obligados afectados por dicho cambio que se ha materializado a finales de enero de 2020.

**<u>Actuaciones de Gestión Tributaria realizadas por los Servicios de la Dirección de Hacienda</u>**.

La gestión tributaria tiene como misión fundamental la revisión y liquidación, en su caso, de las declaraciones que presentan los Contribuyentes por la totalidad de los tributos concertados, así como la resolución de los recursos de reposición que aquéllos interpongan contra las liquidaciones provisionales generadas.

Dentro de la Gestión, son objetivos esenciales, la detección y regularización de los incumplimientos tributarios –materiales y formales- mediante actuaciones de control y, en su caso de imposición de sanciones, en relación con las conductas infractoras, dirigidas todas ellas a impulsar la lucha contra el fraude fiscal. Para ello se continúa potenciando el

## 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 20 OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Programa:** 21 ZERGA ADMINISTRAZIOA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**Programa:** 21 ADMINISTRACION TRIBUTARIA

Zerbitzuaren baliabideen ikerketa lanak osatzeko xedearekin.

Zehatzago, zerga kudeaketako jarduketak, Ogasun Zuzendaritzaren zerbitzuek egindakoak, honakoak izan dira:

*Zuzeneko Zerga Zerbitzua*

Oro har, honakoak sustatu dira:

- Enpresek Foru Ogasunarekin duten harreman telematikoa egiteke dauden aitorpen prozesuei eta aitorpen-likidaziokoei dagokienez, bai eta zerbitzuei dagokienez ere.
- Zergadunek eskatuta hasarazitako prozeduren izapidetzea: autolikidazioak zuzentzeko eskaerak, berraztertze errekurtsoak, foru aginduen tramitazioa eta kontsultak.
- Ofizioz hasitako prozedurak izapidetzea: errekerimenduak, likidazioak eta zehapenak.
- Legegintzaren arloko berrikuntzak inprimakien ereduetara egokitzea.
- Webgunea eguneratzeko eta mantentzeko zereginak.

Sekzioka zehaztutako, honako jarduketak burutu dira:

1. Pertsona fisikoen errentaren, ondarearen eta ordainketa zatikatuen gaineko zerga
   - Arabako zergadunei bidalitako eta prestatutako PFEZren aitorpen proposamenen kalitatea hobetzen jarraitzen da (aurten, 113.045), betiere aldarazpen kopurua murrizten segituz. Bestalde, epean onartu ez diren eta bestelako bideak baliatuz aurkeztu ez diren proposamen positiboak behin-behineko likidazio gisa birbidali dira, zergadunek Arabako Foru Ogasunaren aurrean duten betebeharra bete dezaten.
   - Errenta kanpaina izan bitartean, ogasunaren bulegoetan errenta aitorpena egin zaie 30.188

procedimiento de comprobaciones limitadas desde los Servicios de Gestión Tributaria, con el objeto de complementar las labores de investigación de los recursos del Servicio de Inspección de Tributos.

En concreto, las actuaciones en materia de gestión tributaria de los Servicios de la Dirección de Hacienda han sido:

*Servicio de Tributos Directos*

Se ha promovido con carácter general:

- La relación telemática de las empresas con la Hacienda Foral en cuanto a los procesos de declaración y declaración-liquidación pendientes, así como de los servicios.
- La tramitación de los procedimientos iniciados a instancia de los contribuyentes: solicitudes de rectificación de autoliquidaciones, recursos de reposición, tramitación de distintas órdenes forales y consultas.
- La tramitación de los procedimientos iniciados de oficio: requerimientos, liquidaciones y sanciones.
- Adaptación de las novedades legislativas a los modelos de los impresos.
- Labores de la actualización y mantenimiento de la página web.

Especificando por Secciones se han efectuado las siguientes actuaciones:

1. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Patrimonio y Pagos Fraccionados
   - Se continúa mejorando la calidad de las propuestas de declaración del IRPF confeccionadas y enviadas a los Contribuyentes alaveses, en concreto para este año 113.045, de manera que sigue disminuyendo el porcentaje del número de modificaciones. Por otro lado, las propuestas positivas que no han sido aceptadas en plazo ni han presentado por otros medios, han sido reenviadas como liquidaciones provisionales, con el fin de que los contribuyentes cumplan con su obligación ante la Hacienda Foral Alavesa.
   - Durante la campaña de Renta en las oficinas de la Hacienda se ha realizado la declaración de Renta a

zergaduni eta 21.297 zergadunen Rentafacil-en proposamenak onartu edo aldatu dira.

– Errekerimenduak egin zaizkie 2017ko PFEZren aitorpena aurkezteko betebeharra epean bete ez duten zergadun guztiei.

– 2018ko ekitaldiko kanpaina izan bitartean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren sekzioko pertsonalak honako intzidentzia hauen egiaztapenak egin ditu, PFEZren itzulketen prozedura automatizatuetan agerian jartzen diren intzidentzietan oinarrituz: kenkarirako eskubidea ematen duten ohiko etxebizitza erosteko maileguak, aitortu gabeko errentamenduak eta ohiko etxebizitzaz bestelako errentamenduetara egotzitako gastuen egiaztapena, familia kenkariak.

– Halaber, zergadunek euren zerga betebeharrak zuzen bete ditzaten, zenbait kontrol egin zaizkie zerga iruzurrerako aukera ematen duten errenta jakin batzuei. Zehatzago, 2019an, besteak beste, jarduera ekonomikoa duten zergadunei egiaztapen mugatuak egin zaizkie, lan etekinengatik jasotako atzerapenak eta atzerrian pentsioak jasotzen dituzten zergadunei likidazioak eta errekerimenduak egin zaizkie.

– Auzitegi Gorenaren urriaren 3ko 1.462/2018 epaiaren ondorioz, legezko doktrina gisa hau finkatu zen: "Gizarte Segurantzatik jasotako amatasun prestazio publikoak salbuetsita daude pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik"; 2019an, guztira, 15.414 likidazio egin dira 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017ko ekitaldietakoak, urte horietan amatasunaren prestazioak jaso dituzten zergadunen egoera erregularizatzeko.

– Ondarearen gaineko zerga aurkezteko betebeharra duten zergadunei egiaztapenak egin zaizkie, zehatzago enpresen partaidetzaren balorazioari dagokionez.

– Bihileko, hiruhileko eta seihilekoetako ordainketa

30.188 contribuyentes y se han aceptado o modificado las propuestas de Rentafácil de 21.297 contribuyentes

– Se han realizado requerimientos a todos aquellos contribuyentes que no han cumplido en plazo su obligación de presentar la declaración por el IRPF 2017.

– El personal de la sección del Impuesto sobre la Renta de las personas Físicas durante la campaña del ejercicio 2018, en base a las incidencias que se ponen de manifiesto en los procesos automatizados de las devoluciones por el IRPF ha realizado comprobaciones de las siguientes incidencias: préstamos destinados a la adquisición de vivienda habitual que dan derecho a deducción, arrendamientos no declarados y comprobación de gastos imputados a arrendamiento distintos a la vivienda habitual, deducciones familiares.

– Posteriormente a la campaña con el fin de que los contribuyentes cumplan correctamente sus obligaciones tributarias se han llevado a cabo una serie de controles sobre ciertas rentas susceptibles de fraude fiscal. En concreto, durante el año 2019 se han realizado comprobaciones limitadas a contribuyentes con actividad económica, atrasos percibidos por rendimientos de trabajo, se han liquidado o requerido a contribuyentes que perciben pensiones en el extranjero entre otros.

– Como consecuencia de la sentencia 1.462/2018 del Tribunal Supremo, de 3 de octubre de 2018, que fijó como doctrina legal: “Las prestaciones públicas por maternidad percibidas de la Seguridad Social están exentas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas”, se han practicado durante 2019 un total de 15.414 liquidaciones de los ejercicio 2013, 2014, 2015, 2016 y 2017 a fin de regularizar la situación de los contribuyentes que durante estos años han percibido prestaciones por maternidad.

– Se han efectuado comprobaciones a los contribuyentes que tienen obligación de presentar el Impuesto sobre el Patrimonio, en concreto en lo que respecta a la valoración de participaciones en empresas.

– Elaboración de las matrículas y liquidaciones de

zatikatuen ofiziozko matrikulak eta likidazioak prestatu zaizkie jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoei.

- PFEZren ordainketa zatikatuak, zehaztasun eta kalitate handiagoarekin, zein zergaduni igorri behar zaizkion zehazte aldera, ZEBen bidez kolektiboa lortzeko prozedura hasi da, eta bihileko ordainketa zatikatuaren jarraipenean hobekuntzak egin dira.
- Aurkezpen telematikoa gaitu da 130 eredurako (Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Jarduera ekonomikoen ordainketa zatikatua. Jardueraren hasiera) eta 345 eredurako (Planak, pentsio funtsak, sistema alternatiboak eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateak. Urteko aitorpena).
- Informazio eredu berri bat onetsi da: 179 eredua (helburu turistikoetarako etxebizitzen erabilera lagatzea), bai eta hura egiteko eta ondoren egiaztatzeko beharrezkoak diren barruko aplikazio informatikoak ere.

2. <u>Sozietateen gaineko zerga</u>

- 2018ko ekitaldiari dagozkion sozietateen gaineko zergaren kanpaina prestatzeko beharrezko lanak egin dira (laguntza programa, iragazkiak, webgunea, monitorea, etab.), eta legegintza berrikuntzak inprimakien ereduetara egokitu dira.
- Ordainketa zatikatuak egiaztatu dira enpresa ertain eta handiei zuzendutako sozietateen zergan eta, ondorioz, 203 eta 223 ereduak egokitu dira, bai eta laguntza programa eta barne aplikazio informatikoak ere, horiek prestatzeko eta jarraian egiaztatzeko beharrezkoak baitira.
- Paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeekin loturik edo zerikusirik duten eragiketen eta egoeren aitorpen informatiboaren 232 eredu berria egokitu da eta, ondorioz, laguntza programa eta barne aplikazio informatikoak egokitu dira, horiek taxutzeko eta jarraian egiaztatzeko beharrezkoak baitira.



oficio de los pagos fraccionados bimestrales, trimestrales y semestrales, a las personas físicas que ejercen actividades económicas.

- A efectos de determinar el colectivo de contribuyentes a los que hay que girar los pagos fraccionados de IRPF, con una mayor precisión y calidad, se ha iniciado un procedimiento para obtener el colectivo a través del CUC, asimismo se han efectuado mejoras en el seguimiento del pago fraccionado bimestral.
- Se ha habilitado la presentación telemática de los modelos 130 (Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Pago Fraccionado de Actividades Económicas. Inicio de actividad) y 345 (Planes, fondos de pensiones, sistemas alternativos y mutualidades de previsión social. Declaración anual).
- Aprobación de un nuevo modelo informativo: 179 (Cesión de uso de viviendas con fines turísticos), así como las aplicaciones informáticas internas, necesarios para su confección y posterior comprobación.

2. <u>Impuesto sobre Sociedades</u>

- Se han realizado los trabajos necesarios para la preparación de la campaña del Impuesto sobre Sociedades correspondiente al ejercicio 2018 (programa de ayuda, filtros, página web, monitor, etc.), y se han adaptado las novedades legislativas a los modelos de los impresos.
- Se han comprobado los pagos fraccionados en el Impuesto sobre Sociedades para las medianas y grandes empresas, y en consecuencia se han adaptado los modelos 203 y 223, así como el programa de ayuda y las aplicaciones informáticas internas, necesarios para su confección y posterior comprobación.
- Se ha adaptado el nuevo modelo 232 de declaración informativa de operaciones vinculadas y de operaciones y situaciones relacionadas con países o territorios considerados paraísos fiscales, y en consecuencia se ha adaptado el programa de ayuda y las aplicaciones informáticas internas, necesarios para su confección y posterior comprobación.

– Sozietateen gaineko zergaren zergadunek betebehar formalak betetzen dituztela egiaztatzea (errekerimenduak, zehapenak…).

– Iruzurraren aurkako borrokaren arloan: 2018ko ekitaldiko itzulketak; zerga oinarria zehazteko doikuntza negatiboak; ezohiko aktibo berrietan egindako inbertsioengatiko, enplegua sortzeagatiko eta ingurumenagatiko kenkariak; emaitzen aplikazioaren arloko zuzenketak (erreserbak); ondare sozietateen erregimena; zerga oinarri negatiboen konpentsazioak; eta aitorpenak betetzean IFZ fikziozkoen erabilera.

– Ogasunari buruzko web orria berrikustea (diseinua, edukia, izapideak…).

3. Atxikipenak eta ez-egoiliarrak

– Inprimakiak egokitu dira atxikipenetan eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan izandako lege berrikuntzetara.

– Atxikipenen laguntza programak aldatu dira, bai eta ez-egoiliarren ereduak aurkezteko lineako formularioak ere, lege berrikuntzetara egokituz.

– Itzultzea eskatzen duten ez egoiliarren aitorpenak egiaztatu dira, bai eta aurrekoen ondorioz sartu beharreko aitorpenak aurkezteko errekerimendua ere.

– Atxikipenen ereduen errekerimenduak eta likidazioak egin dira (hiruhileko edo hileko ereduen erkaketa urteko ereduekin) eta horien ondorioz sortutako zigorrak ezarri dira.

*Zeharkako Zerga Zerbitzua*

2019an Zeharkako Zergen Zerbitzuaren ataletan egin diren eginkizun esanguratsuenen artean honako hauek nabarmendu behar dira:

1. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko atala, egintza juridiko dokumentatuen atala eta oinordetzen eta

– Comprobación del cumplimiento de las obligaciones formales de los contribuyentes del impuesto sobre Sociedades (requerimientos, sanciones…)

– Dentro del marco de la Lucha contra el Fraude se ha comprobado: las devoluciones del ejercicio 2018; los ajustes negativos para determinar la base imponible; las deducciones por inversiones en activos no corrientes nuevos por inversiones, por creación de empleo y las deducciones medio ambientales; las correcciones en materia de aplicación de resultados (reservas); el régimen de sociedades patrimoniales; las compensaciones de Bases imponibles negativas; y la utilización de NIF ficticios al cumplimentar las declaraciones.

– Comprobación de la página web referente a Hacienda (Diseño, contenido, trámites etc.)

3. Retenciones y No Residentes

– Se han adaptado los impresos a las novedades legislativas en Retenciones y en el Impuesto sobre la Renta de No Residentes

– Se han modificado los programas de ayuda de retenciones y los formularios on line para la presentación de modelos de no residentes, adaptándolos a las novedades legislativas.

– Se han comprobado las declaraciones de no residentes que solicitan devolución así como requerimientos de presentación de declaraciones a ingresar que se deriven, en su caso, de las anteriores.

– Se han realizado los requerimientos y liquidaciones de los diferentes modelos de retenciones (contraste de los modelos trimestrales o mensuales con los modelos anuales), así como la imposición de sanciones que se deriven de las mismas.

*Servicio de Tributos Indirectos*

Entre las tareas más significativas realizadas en las Secciones del Servicio de Tributos Indirectos en el año 2019 se destacan las siguientes:

1. Sección de Transmisiones Patrimoniales, Actos Jurídicos Documentados y Sucesiones y

dohaintzen atala.

Kudeatzen dituen zergekin zerikusia duen atalean egiten diren eguneroko berezko eginkizunen aurrean, jendearentzako arreta, kontsulten erantzuna, autolikidazioen egiaztapena, honako hauek gehitu behar dira duten garrantziagatik:

- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren autolikidazioak aurkezteko laguntza programa eguneratzea, hainbat hobekuntza sartuta; eguneratze hori 2020ko urtarrilean jarri zen martxan.
- Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren autolikidazioak egiaztatzeko iragazkia garatu eta ezartzea, eta kontsultak hobetzea.
- 620 ereduko ibilgailu erabilien transmisio autolikidazioen izapidetze telematikoaren prozedura garatzea eta balioestea. Prozedura hori 2020rako ezartzea aurreikusi da, Arabako Foru Aldundiaren eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren arteko lankidetza hitzarmen bat sinatu zain baitaude.
- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren likidazioen datuak iraultzea, BIn ustiatzeko.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren eta zerga berezien atala.

Egunero ataleko zergak kudeatzeko berezko eginkizunen barruan, honako hauek nabarmentzen dira:

Balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez: Berehalako Informazio Hornikuntza (BIH) ezartzeko lanekin jarraitzen da:

- BIH proiektu handia da, eta hura ezartzeko jasotako informazioa behar bezala kudeatzeko behar diren tresnak garatzeko lanak hainbat fasetan egin behar izan da.
- 2018an, BEZaren erregistro liburuak AFAren egoitza elektronikoaren bidez eramateko sistema

Donaciones.

A las tareas diarias propias que se realizan en la Sección en relación con los Impuestos que se gestionan en la misma, atención al público, contestación consultas, comprobación de autoliquidaciones, hay que añadir por su especial relevancia las siguientes:

- Actualización del programa de ayuda para la presentación de autoliquidaciones del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, incorporando diversas mejoras, esta actualización ha entrado en funcionamiento en enero de 2020.
- Desarrollo e implantación del filtro de comprobación de autoliquidaciones del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados y mejora de consultas Ion.
- Desarrollo y validación procedimiento de la tramitación telemática de autoliquidaciones de transmisión de vehículos usados modelo 620. La implantación de este procedimiento está prevista para 2020, pendiente de la firma de un convenio de colaboración entre Diputación Foral de Álava y la Dirección General de Tráfico.
- Vuelco de datos de liquidaciones del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones para su explotación en BI.

2. Sección del Impuesto sobre el Valor Añadido e Impuestos Especiales.

A las tareas que se realizan diariamente propias de la gestión de los distintos Impuestos que se integran en la Sección, se destacan las siguientes:

En relación con el Impuesto sobre el Valor Añadido: se continua con las tareas de implantación del Suministro Inmediato de Información (SII):

- El SII es un gran proyecto cuya implantación ha exigido que los trabajos para desarrollar las herramientas necesarias para gestionar adecuadamente la información recibida se estén realizando en varias fases.
- En el año 2018, cuando se implantó este sistema de llevanza de los libros registros de IVA a través de

hura ezarri zenean, lehentasuna izan zen behartutako subjektu pasiboek Egoitzaren bidez informazioa bidal zezaketela eta hura jaso zedin, horrela, subjektu pasibo horiek aurkeztutako autolikidazioetan aitortutako datuekin bateratu ahal izateko jasotako informazioa.

- 2019ko ekitaldian, AKGSAko langileekin batera lan egin da, jasotako informazioa kontsultatzeko eta jasotako informazioaren kudeaketa integralerako finkatzen ahalbidetzen duten barne aplikazioak garatzen. Hala, gaur egun kontsulta hauek daude:
  - Jaulkitako fakturen erregistro liburua
  - Jasotako fakturen erregistro liburua
  - Inbertsio ondasunen liburua
  - Europako Erkidegoaren barruko bestelako eragiketen erregistro liburua
  - Zerga ondorioak dituzten eragiketen liburua:
    - Bidaia agentziak
    - Eskudirutako ordainketak
    - Aseguru eragiketak

Halaber, 2019an, eta proiektu honen guztiaren funtsezko zati gisa, gainerako foru ogasunekin batera lan egin da informazioa bi mailatan trukatzeko:

- Errolda mailan: errolda datuak trukatu dira, errolda instrumentala eguneratuta mantentzeko.
- Fakturazio erregistroen mailan: foru ogasunek ere ikuskaritza gaitasunaren ditugun BIHra behartutako subjektu pasibo bakoitzarengandik jasotako informazioa trukatu diogu elkarri.

Zerga bereziei dagokienez, honako hauek dira 2019an egindako zeregin esanguratsuenak:

- Zerga bereziak kudeatzeko prozeduretan ZAEAk ezarri dituen aldaketak araudira egokitzea (Siane,



la Sede electrónica de la DFA, la prioridad se centró en que los sujetos pasivos obligados pudieran a través de la Sede enviar la información y que la misma se recibiera para poder así conciliar la información recibida con los datos declarados por dichos sujetos pasivos en las autoliquidaciones presentadas.

- En el ejercicio 2019 se ha trabajado conjuntamente con el personal de CCASA en desarrollar las aplicaciones internas que permitan asentar la información recibida para la consulta y la gestión integral de la información recibida. Así, actualmente se dispone de las siguientes consultas:
  - Libro registro de facturas expedidas
  - Libro registro de facturas recibidas
  - Libro de bienes de inversión
  - Libro registro de otras operaciones intracomunitarias
  - Libro de operaciones con trascendencia tributaria:
    - Agencias de viajes
    - Cobros en metálico
    - Operaciones de seguros

Así mismo en el año 2019 y como parte fundamental de todo este proyecto también se ha trabajado conjuntamente con las demás Haciendas Forales en el intercambio de información a dos niveles:

- A nivel censal: se han intercambiado datos censales de cara a mantener actualizado el Censo instrumental.
- A nivel de los registros de facturación: también entre las distintas Haciendas Forales nos hemos intercambiado la información recibida de cada uno de los sujetos pasivos obligados al SII de los cuales tenemos competencia inspectora.

En relación con los Impuestos Especiales, se destacan las siguientes tareas como más significativas realizadas en el 2019:

- Adaptación normativa de los diversos cambios en los procedimientos de gestión de los Impuesto Especiales que ha implementado la AEAT (Siane,

Precintas, Silicie).

- SIANE. 2019ko urriaren 1ean zerga berezien xede diren produktuen esparruan erabiltzen diren dokumentuak kudeatzeko sistema berri bat sartu zen indarrean, honako prozedura hauei dagokienez:
  - Bideko salmentak (Zerga berezien erregelamenduaren 27. artikulua).
  - Erregaiak aireontzietara hornitzea (Zerga berezien erregelamenduaren 101. artikulua).
  - Erregaiak ontzietara hornitzea bideko salmenta bidez (Zerga berezien erregelamenduaren 102. artikulua).
  - Itzulketa eskaera gasolioa ontzietara hornitzeagatik (Zerga Berezien Legearen 50.2.b artikulua eta Zerga berezien erregelamenduaren 110. artikulua).
- Kudeaketa sistema berri horrek eskatzen dituen aldaketetara egokitzeko, 2019ko ekitaldian zehar lan egin da eman beharreko informazioa laguntza programa baten bidez bidali ahal izateko.
- MARKA FISKALAK (zigiluak): 2019ko amaieran, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zerga berezien erregelamenduaren 26. artikuluan xedatutakoa garatzeko arau berriak onetsi zituen. Erregelamendu hori uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onetsi zuen, edari eratorrietarako aurreikusitako marka fiskalei buruzkoak (zigilu fiskalak). Berritasun nagusia horiek eskatzeko prozedura da, telematikoa izan beharko baita, eta, ondoren, haien destinoari buruzko datuak sartu beharko dira, zeinak hartzaileek emango baitituzte, haien trazabilitateari buruzko informazioa izateko helburuarekin.

  Helburu horrekin, gure Egoitzan neurri horien azterketa eta eragina landu da, eta 2020an amaituko da, aplikazio bat ezarrita, gure subjektu pasibo zergadunei aukera emango diena horiek gure egoitza elektronikoaren bidez lortzeko eta araudiak eskatzen dituen datuak Egoitzan eskuragarri dagoen inprimaki baten bidez sartzeko.



Precintas, Silicie).

- SIANE. el 1 de octubre de 2019 entró en vigor un nuevo sistema de gestión de los documentos utilizados en el ámbito de los productos objeto de los Impuestos Especiales (SIANE), en relación con los siguientes procedimientos:
  - Ventas en ruta (Art. 27 del Reglamento de los Impuestos Especiales).
  - Avituallamientos de carburantes a aeronaves (Art. 101 del Reglamento de los Impuestos Especiales).
  - Avituallamientos de carburantes a embarcaciones por el procedimiento de ventas en ruta (Art. 102 del Reglamento de los Impuestos Especiales).
  - Solicitud de devolución por avituallamiento de gasóleo a embarcaciones (Art. 50.2.b de la Ley de Impuestos Especiales y 110 del Reglamento de los Impuestos Especiales).
- Con el fin de adecuarse a los cambios que este nuevo sistema de gestión requiere, a lo largo del ejercicio 2019 se ha trabajado para que la información a suministrar pueda ser remitida a través de un Programa de ayuda.
